



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

2012/2013 denboraldia

## 11 ZK.DUN ZIRKULARRA

### KADETEEN EUSKAL LIGA

Euskadiko Futbol Federakundeak Kadeteen Euskal Liga antolatuko du 2012/2013 denboraldian, ondorengoei jarraiki:

#### 1. Parte hartuko dute klubak

Alavés D.; Antiguóko K.E.; Ariznabarra C.D.; Athletic C.; Barakaldo C.F.; Cultural Durango; Danok Bat C.; Eibar S.D.; Gernika S.D.; Getxo C.D.; Hernani S.D.; Olarizu C.D.; Ostadar S.K.T.; Real Sociedad de Fútbol; Romo F.C.; Santutxu F.C.

#### 2. Lehiaketa sistema

Multzo bakarrean, puntuetara eta itzuli bitan, hogeita hamar jardunalditan, guztira egingo da lehiaketa, eta Euskadiko Futbol Federakundearen Araudi Orokorreko xedapenak aplikatuko dira.

#### 3. Partiden data eta ordutegiak

Lehen itzulia: irailaren 9, 16, 23 eta 30; urriaren 7, 14, 21 eta 28; azaroaren 4, 11, 18 eta 25; abenduaren 2, 9 eta 16.

Bigarren itzulia: urtarrilaren 6, 13, 20 eta 27; otsailaren 3, 10, 17 eta 24; martxoaren 3, 10 eta 24; apirilaren 7, 14, 21 eta 28.

Partidak larunbat aurreratu ahalko dituzte talde antolatzaileek, aurkariaren oniritzia izan gabe ere.

Esan be ordutegi zerro bat jarri dala, beraz partiduak 10,30etatik-13,00etara eta 15,30etatik-18,30etara bitartean jokatuak izan beharko dute, logikoki burrututzen duten klubuen arteko akordioa izan ezik.

.../...



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

- 2 -

#### **4. Sailkapen ondorioak**

Sailkapenean 13, 14, 15 eta 16. amaituriko taldeak jaitsiko dira lurralde ligetara.

Orobat, lurralde ligan lehenengo postua lorturiko taldeak igoko dira Euskal Ligara, bai eta igoera faseko irabazlea ere. Igoera fasean liga horietako bigarren amaiturikoak lehiatuko dira, hiru batean sistemaren arabera.

#### **5. Ordezpenak**

Partidetan, gehienez bost futbolari. Gehienez zazpi balizko ordezkoko egon ahalko da, eta partida hasi baino lehen, horien izenak eta titularrenak jakin beharko ditu arbitroak.

#### **6. Arbitroak**

Partida jokatzen den lurraldeko federaziokoak izan beharko dute. Batik bat Lurralde Maila Goreneko arbitroek zuzenduko dituzte partidak.

#### **7. Diziplina Araudia**

Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiak arautuko du lehiaketa, eta gerta daitezkeen gorabeherak Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina eta Apelazio batzordeek ebatziko dute.

Eta horren berri ematen da, behar duen orok jakin, eta dagozkion ondorioak ekar ditzan.

Bilbon, 2012ko irailaren 3n.



JON ANDER GAMBOA AGUIRRE  
Secretario General